



Josu Agirre fitxatu du Orbea taldeak

TOLOSA ▶ Profesionaletan ariko da 2006ko denboraldian 24 urteko txirrindulari tolosarra

«**ILUSIOZ**» ▶ Gogotsu dago, eta maila berrira «azkar eta arazorik gabe moldatzea» espero du ▶ 3

IBARRA ▶

Denboraldia txukun hasi du Ibarra areto futbol taldeak

Roca entrenatzailearen iritziz, «herrian horrelako taldea izatea ez da txantxetakoa» ▶ 6

LEITZA ▶

Mendialdeko Abesbatzen Biltzarrean ariko da Asketa

Donezteben abestuko du gaur iluntzean; 250 kantari elkartuko ditu topaketak ▶ 7

AITOR MENDILUZE ▶ BERTSOLARIA

«Esperientzia eta gaztetasuna eskutik doaz txapelketa honetan»

Bihar du Bertsolari Txapelketa Nagusiko estreinakoa, Gasteizen ▶ 5



I. GARCIA

Ekitaldiz beteriko San Martin Eguna

TOLOSALDEA ▶ Jai giroa izan zen nagusi, atzo, Amasan, Alkizan eta Amezketan; gaur, Amasan, bertakoen eta gazteluarren arteko lehia ▶ 4



jantzi
hitzaren
jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

GIZARTEA ▶

JOXEMI SAIZAR

Paris eta Frantziako hainbat hiri sutan daude. Egoera txarrean bizi direlako sutan dauden etorkinen seme-alaba gazteek su ematen diete autoei, zabor ontziei, eraikin publikoei, enpresa pribatuei, biltegiei, supermerkatuei... Arazoa hiriburuan hasi zen joan zen astean, eta azken egunotan beste hainbat hiritarra zabaldu da. Parisen bizi eta etorkinekin lan egiten duen tolosar baten testigantza jaso du Hitzak.

Jose Mari Oria Muñagorri tolosarrak 17 urte daramatza Parisen bizitzen. Psikologoa da ikasketaz eta urteak daramatza babestutako etxe alokatuen arduradun gisa gobernuarentzat lan egiten. Beharra duten horien artean etorkinak dira nagusi, Ipar Afrikatik eta Afrika osotik duela hiruzpalau hamarkada lanera etorri zirenak eta beren ondorengoak. Lan administratiboa da berea: behar dutenei etxea bilatu konpainia publiko eta pribatuetan —Parisen %45 alokairuan bizi da—, laguntzak kudeatu, bisitak egin etxea behar den bezala dagoen ikusteko... Azken urte hauetan beste zeregin berria sortu zaio bere lanean: familia poligamoetako —debe-katuta daude legez— bigarren edo hirugarren emazteari etxea bilatzea.

60. hamarkadako auzoak

«Lan egiten dudan jendea 60. hamarkadan eraikitako auzo horietan bizi da. Renault, Peugeot eta horietako enpresa handiak sortu zirenean eskulan handia behar zen, eta milaka langile ekarri zituzten Ipar Afrikatik. Afrikako kolonietan izandako gerren ondorioz ere jende asko etorri zen Parisera asilo eske. Horientzat eta haien familientzat sortu ziren auzo horiek. Gaur egun, berriz, —automatizazioarengatik eta produktu asko kanpotik merkeago ekartzan dituztelako— lan beharra bukatu egin da, industria desagertu egin da eta ondorengo belaunaldien artean langabezia handia dago», azaldu dio Jose Mari Oriak Hitzari. Auzo baztertu horietan —«ghettoak dira batzuk», dio— langabezia %20-25ekoa

Haserrea sutan

Pariseko gertaerak gertutik ezagutu ditu Jose Mari Oria tolosarrak; «etorkinak ez integratzeagatik» sortu da arazoa haren iritziz



Pariseko Aulnay sous Bois auzoan gazteek su eman zieten hainbat autoei. Argazkian, hilaren 3an gertatutakoaren irudi bat. HITZA

JOSE MARI ORIA ▶ GIZARTE LANGILEA PARISEN

«Lan beharra bukatu egin da, industria desagertu egin da eta auzo horietan langabezia handia dago»

«Komunikabideak etorri direla ikusi dute eta besteentzat eredu izan da; konpetentzia sortu da auzoen artean»

«Etorkinen seme-alaben artean diplomatu asko dago, baina ez dute lanik; gizarteak ez du hauek integratzen jakin»



da edo handiagoela seinatu du tolosarrak. Auzo horietako gazteen egoera bi hitzetan laburbiltzen du: «Nazkatuta daude». Eskolan ez dute sinesten, telebista eta kontsumo gizartearen erabat murgilduta daude, eta dena berehala lortu nahi dutela esaten du.

Egun hauetan bizitzen ari diren egoerarekin ez da batere harritzen: «Erregaia hor zegoen aspaldi eta Sarkozy su eman dio bere adierazpenekin» [auzo horietako biztanleak jendilajea direla eta denak bota egin behar direla esan zuen Barne ministroak]. Ardur handia izanda ere, Frantziako Barne ministroa «arduradun bakarra» ez dela dio. «Gertakizun hauengatik telebistak eta komunikabideak etorri direla ikusi dute eta beste auzoentzat eredu izan da. Konpetentzia modukoa sortu da auzo

eta banden artean», dio tolosarrak.

Gobernuaren aldaketa

Gizarte langile honen iritziz «gobernua» berandu iritsi da, eta azkenaldian egin dituen aldaketa batzuk eragina izan dutela uste du: «Alde batetik, auzo horietan zegoen prebentzio polizia kendu egin du. Bestalde, kultur eta kirol elkarte asko dago Frantzian. Gizarteratze lan garrantzitsua egiten dute eguneroko bere zereginen. Bada, orain elkarte horientzako diru laguntzak murriztu egin ditu gobernu eskuindarrak». Lehengo gobernuak ere auzo baztertu horiekin «arazo bera» izan zuela badaki, eta ez omen zuen «gauza handirik egin konpontzeko, behar ziren erabakiak ez zituen hartu».

Une hauetan auzo horietan

—Clichy, Saint Denis, Montfermeil...— polizia asko dagoela dio, «helikoptero eta guzti», eta bere lana egitera ere ez omen da inguratzen tolosarra: «Badaezpada hobe ez gerturatzea auzo horietara, une hauetan oso arriskutsua da».

Egoera latz honi irtenbide oso zaila ikusten dio Oriak: «Esperantzarik ez dago. Lanpostu baterako, frantziarren aurrean etorkinek ez dute aukerarik, eta beltza izanda are gutxiago». Tolosarrak uste du «makila» etorriko dela hementik aurrera, udalek beren egoera gogortu egingo dutela.

Segregazioa hautsi behar dela uste du: «Etorkinen seme-alaben artean diplomatu asko dago, baina ez dute lanik. Zein eredu dira besteentzat? Horrek eragina izan du egoera honetan. Frantziako gizarteak ez du etorkin jende hau inte-

gratzen jakin». Azken urte hauetan gobernuak diru asko ari omen da sartzan 60. hamarkadako etxe handi horiek bota eta etxe txikiagoak eta berriak egiteko, «baina auzoak eraberritzeko 10 urte behar dira».

Joan zen udaberrian eta udazkenean etorkinen bizilekuetan kalte handiak eta hildako asko eragin zituzten lau sute handi izan ziren Parisen. Gertutik ezagutzen ditu Oriak kasu hauek, nahiz eta kasu desberdinak izan —hotelak, etxeak...—: «Subsidioaren bidez ordaindutako milaka ohe dauera gauera Parisen, hoteletan, etxeetan. Kasu guztietan jendeak ez zekien nola jokatu sute baten aurrean, esperientziarik ez zuen, eta eskaileretara atera ziren korrika, edo leihotik ateratzen saiatu ziren, haurrak leihotik bota... Hildako asko izan ziren».

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz. 943 31 37 82.
Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37

82.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze,

Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Harreragileak. Harreragile-telefonista. Udaleteetarako plaza libreak. Informa

zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.
Sukaldari laguntzaileak. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

TXIRRINDULARITZA ▶

Orbea euskal taldean ariko da Josu Agirre 2006ko denboraldian

24 urteko txirrindulari tolosarrak 6 urte eman ditu afizionatuetan; «pozik eta ilusioz» ekingo dio denboraldiari



Orbea taldean ariko da Josu Agirre txirrindulari tolosarra. IÑIGO ASENSIO

NOELIA LATABURU

Orbea talde profesional kontinentalarekin akordio batera iritsi berri da Josu Agirre. 24 urteko txirrindulari tolosarrak 6 urte egin ditu afizionatuetan, talde ezberdinetan. Horrela, Agirreraren fitxajearekin, eta Iñigo Lazkano txirrindulari gipuzkoarrarekin batera, 2006 denboraldirako taldea itxi du Orbeak.

Azken denboraldian Bidelan taldean ari zen Agirre, afizionatu mailan, eta maisutasunez garaipen garrantzitsuak lortu ditu, besteak beste, Gipuzkoako Txapelketa eta Elgetako Mendiko Kriterium-eko garaipena. Orbea talde bizkaitarraren zuzendari Jon Odriozolak adierazi duenez, «amateur mailan txirrindulariak emandako maila bikaina» dela eta erabaki du taldera ekartzea. Ez

da hala nola hartutako erabakia izan, gainera. Izan ere, neoprofessionaldiren makina bat txirrindulariren jarraipena egin dute taldetik. Tolosarrak «bere kalitatearen adierazle diren zantzu andanak eman ditu azken denboraldian», Orbeakoek esandakoaren arabera, «bere karreraren une egokienean dago Orbean sartzeko», honek ProTour-ean aritzeko aukera emango baitio.

«Oso pozik eta ilusioz» jaso du berria txirrindulariak, eta maila ona ematea espero du. «Ez nuen horrelakorik espero, denboraldi ona burutu dudan arren», aitortu du zorioitsu Agirrek. «Banekien haien zereñdian nengoela, baina ez horren goran nengoela; oso pozik nago». Oraingoz urtebeteko konpromisoa hartu du talde bizkaitarrarekin eta, denboraldia aurrera doan heinean,

JOSU AGIRRE
TXIRRINDULARIA

«Erronka berria gogoz eta ilusioz hartuko dut; maila berrira azkar eta arazorik gabe moldatzea espero dut»

«nola nabilen ikusi beharko da, hurrengo urteei buruz hitz egiteko». Bere helburua, erronka berri honen aurrean, bere buruarekin gustura sentitzea izango da, itxura ona ematea eta lesioekin arazorik ez izatea; izan ere, «azkenaldian lesio asko izan ditut». Halaber, maila berrira «arazorik gabe eta ahalik eta azkarren» moldatzea espero du. «Zenbait lasterketa korritu ditut dagoeneko eta mailak ez dit beldurrik ematen, baina bai errespetua», esan du Agirrek. Afizionatuetan igarotako 6 urteetan «esperientzia eta gorputzarentzat egokienera zer den» ikasi du. Etorkizunera begira, berriz, talde handi batean aritzea nahiko luke Agirrek, bere izena «ezagutzera emateko». Ingurukoak ere pozik daudela adierazi du, «uztekoan egon nitzenean haiek bultzatu nindutelako jarraitzera». Zorte guztia opa diogu eta pa berrirako.

KULTURA ▶

‘Yo, Mohamed’ antzezlanaren taularatuko du Zurriola antzerki eskolak Aranburun

Gaur 19:00etan izango da; tolosar batzuk ere hartuko dute parte

N. LATABURU

Zurriola antzerki eskolak *Yo, Mohamed* antzezlanaren taularatuko du, gaur, 19:00etan, Aranburu Jauregian. Donostiako gazte antzerki topaketetan, senior mailan euskarazko lehen saria irabazi duen talde amaterrak 11 aktoreen lantaldea

du: Uxue Pineda, Aroa Lasa, Unai Bernabe, Erik Probanza, Arkaitz Almortza, Anuxka Etxeberria, Maite Villasante, Irati Galarraga, Unai Arzelus, Itsaso Montalvo eta Miren Isasa. Guztak ere 18 eta 19 urte arteko gazteak dira. Kartela Mikel Iriondok burutu du, argi diseinua Anartz Zuazuak, off-eko

ahotsa Itziar Gomezek jartzen du, itzulpena Dani Gomezen eskutik doa eta zuzendaritza lanetan Nagore Aranburu eta Joserra Fachado ariko dira.

Donostian, Oiartzunen, Heranin, Añorgan, Gasteizen eta Lasarten dagoeneko estreinatuta dute lana eta gaurkoan Tolosaren txanda izango da.

AZPIEGITURAK ▶



San Frantzisko ibilbidean farola berriak jartzen ari dira

N. Lataburu ▶ Neguaren gerturatzearekin bat eginez, Tolosako kaleen argizatzea egokitzeari ekin dio Udalak. Horrela, San Frantsisko ibilbideeko farolak berritzen ari dira egunotan. Aurretik zeudenak «modernoagoak» diren beste batzuekin ordezkatuko dituzte. Aurki amaituko dute instalazioa. NOELIA LATABURU

GIZARTEA ▶

V. Mus Txapelketa azkarra, gaur Beotibarren

16:30ean hasiko da; zortzi sari banatuko dituzte bikote irabazleen artean

N. LATABURU

Beotibar pilotalekuak Mus Txapelketa azkarra hartuko du gaur, 16:30etik aurrera. Fronton kafetegiak antolatzen duen txapelketaren bosgarren edizioa da honakoa, eta bertan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Fronton kafetegian, 16:15ak baino lehen.

Partidak lau erregeetara jokatuko dira, antolatzaleek jakitera eman dutenez, sei hamarretako 3 usteletara. Izena ematen duen bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu aldez aurretik. Epaila lanetan dihardutenen erabakia mugigaitza izango da, eta antolatzaleek jendea parte hartzera animatu dute.

Sari potoloak irabazleei

Sariak ere ez dira nolana hikoak izango. Guztira, zortzi bikote izango dira sarituak: V. Mus Txapelketako bikote irabazleak 1.200 euro poltsikoratuko ditu, txapelak, garaikurrak eta ardo estutxeekin batera. Ira-

bazleordeak kopuru erdia eskuratuko du, 600 euro, hain zuzen ere, bai eta garaikurrak ere.

Hirugarrenentzat 300 euroko saria banatuko da. Laugarren geratzen direnek, berriz, 150 euro irabaziko dituzte. Bosgarrenei 100 euro egokituko zaizkie, seigarrenegoei 50 euro; zazpigarren eta zortzigarren postua lortzen dutenek ez dute dirurik eramango etxera, bai, ordea, arkume bat eta bi ardo estutxe, hurrenez hurren.



Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibiltegian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibiltegian.
Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan. Guztin berriua, 244.000 euro.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskoko, 126m2. Garaiekin.
Salgai (Tolosaldean). Garaiekin Ieku ezberdinetan: Ibarra, Batxilerrak Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontan kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garaiekin Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidetan...

943 65 17 13 / 677 46 09 16

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Anoetan bide eginez

Ari gara bai bidea egiten. Euskal Herria benetako bake eta demokraziara eramango duen bidea. Eraikuntza nazionala eta eraldaketa soziala ardatz ditugula konponbidea eraikitzen ari gara. Urte luzez pairatzen dugun gatazkari konponbidea emateko bidea eraikitzen ari gara. Euskal Herri osoko herritar guztien eskubide ororen errespetuan oinarri-

turiko bakea eraikitzen ari gara. Herria eraikitzen ari gara.

Lehenengo ohitura zaharrea aritu nahi dugu, auzolanean, alegia, guztion artean arinago egingo baitzaigu gure herria independentzia eta sozialismora eramango duen bidea.

Ezker abertzalea izan da, urteetako borrokaren ondorioz, gainontzeko alderdi eta eragileak egungo marko politikoa- ren aldaketa beharrezkoa dela onartzera eramán dituen. Aldaketa guztiek bezala, honek ere, oztopo eta arrisku franko

ditu. Horietako bat dugu PNV. Gure herria bidegurutzean aurkitu den bakoitzean, konponbidearen bidea utzi eta interes ekonomiko eta alderdikoiaren bidea hartu baitu.

Dagoeneko martxan den Bidea Eginen prozesua, Batasunak gatazkaren konponbidetako duen proposamena aurkeztu eta bere oinarri sozialarekin eztabaidatzeko baliatu nahi du.

Bide honetan denon ekarpena ezinbestekoa da, nahiz eta txikia izan. Denok dugu gure

herria bakera eramateko konpromisoa, bakoitzak bere aportazio mailarekin, bakoitzak bere esparrutik, ezinbestekoa da ezkertiar eta abertzale guztion indarrak metatzea, bidean azaldu daitekeen arkitzik gogorrena ere zuzaltzeko.

Herrietatik hasi behar dugu bidea eraikitzen. Ilusioz somatzen dugu jendea, hori argi geratu zen lehenengo batzarrean, bai bildu zen jende kopuruagatik, bai parte-hartze aldetik ere.

Hurrengo batzarra ere oso

garrantzitsua dugu. Bertan ezker abertzalearen antolaketa eta egituraketa izango da eztabaidagai nagusia; hau ezinbestekoa baita, bai proposamena gizarteratzeko nahiz herrigintzan lanean jarduteko.

Beraz, deia luzatzen diegu anoetar ezkertiar eta abertzale guztiei, hurrengo larunbatean, hilaren 19a, 10:00etan udalarekin burutuko den II. Batzarrean parte hartzeko.

MIKEL URKOLA ETA EGOITZ ANOETA
(BIDE EGINEZ PROZESUKO ANOETA
DINAMIZATZAILEAK) ▶ ANOETA

SAN MARTIN EGUNA ▶

Festaren berotasunak irabazi du

Amasan, Alkizan eta Amezketan San Martin Eguna ospatu zuten atzo

IMANOL GARCIA

San Martin Egun eguzkitsuzaz gozatu zuten eskualdeko hiru herritan. Eguzkiak ez zuen, hala ere, hainbeste berotu. Berotasuna, ordea, festan zebilenak zeraman berarekin. Amasan, San Martin Eguneko ekitaldi bereziena, lehenengo urtea baitzen, Artzain Zakur Lehiaketa izan zen. Artzate elkarteko kideak aritu ziren lehiari, guztira, sei artzai zakur bere jabeekin. Amasako Musturiazpi baserrian biltzen dira noizean behin zakurrak entrenatu eta esperientziak partekatzen. Eguzkiak egin zuten lehiaketa, eta ikusle dezente elkartu zen, 100 lagun inguru. Aiako Pello Pagadizabal Alai zakurrarekin izan zen lehena; Arantzazuko Jose Ramon Orbeagoz Mendi-rekin, bigarre-

na; eta Galdakaoko Bittor Ben-goetxea Luki-rekin, hirugarren.

Amezketan eta Alkizan ere egun ederra izan zuten atzo. Azken honetan, beste ekitaldien artean, arratsalde partean haurrak zein helduak jolasean aritu ziren herriko plazan. Amezketan, esaterako, haur andana bildu zen txotxongilo emanaldira.

San Martin jaiek jarraipena izango dute gaur Amasan. Herrikoen eta gazteluarren arteko lehia izango da ekitaldi erakargarrienetakoa. Eguerdian izango da hori. Goizean goiz haurren krosa egingo dute. Apustu eta gero, herri bazkaria egingo dute txekor jatearekin. Txiste kontalariak arratsaldetan eta gauean, azkenik, bertso jaialdia eta dantzaldia Abiba DJ-arekin.



Artzain zakur lehiaketa izan zen eguneko ekitaldirik bereziena, atzo, Amasan. I. GARCIA



Amezketan egindako txotxongilo emanaldia —ezkerrean— eta Alkizan jolasean. M. SAN SEBASTIAN / I. GARCIA



hilberriak ▶



Josefa Amundarain Tolosa

(Lurdes gure kidearen ama)



Hosto bat, hosto bi,
orbela bide goxoaren irudi;
pauku bat, pauku bi,
zure arrastoan guk lasai segi.

Zumadi eskolako ikasle, guraso eta irakasleak.

AMEZKETAN, 2005eko azaroaren 12an



Joxepa Amundarain Tolosa

andrea



Atzo hil zen, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Bere animaren zuzendaria: Joxe Agirre; senarra: Juan Larreta; bilobak: Aritz, Joseba, Eneritz eta Gorka, Xuban, Irati eta Beñat, Ekain.

Gauero izkutatzen da eguzkia itsaso aldetik baina zu ez zara aldentuko gure binotzetik.

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuele eta arren etor zaitezela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Amezketako San Bartolome parroki elizan egingo den hiletara. Aidez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Laturu ebasa oharra ▶ gorpua Tolosako belategian egongo da gaur 11:30ak arte.

AMEZKETAN, 2005eko azaroaren 12an

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

AITOR MENDILUZE ▶ BERTSOLARIA

«Txapelketa honetan esperientzia eta gaztetasuna eskutik doaz»

Iruran bizi den bertsolariak igandean egingo du Bertsolari Txapelketa Nagusian estreinaldia, Gasteizen

MARTA SAN SEBASTIAN

«Lasai» dagoela dio Aitor Mendiluzek igandeko saioari begira. «azkeneko unean berotzen den horietakoa» dela aitortzen duelako. Eskarmentu handia du, izan ere, hirugarren Txapelketa Nagusia izango du aurtengoa. 1995ean Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, eta 2003an hirugarren geratu zen. 2001eko Txapelketa Nagusian ere hirugarren geratu zen. **Gogotsu al zaude igandeko estreinaldiari begira?**

Gogotsu orain bai, baina orain arte gogo handirik gabe egon naiz. Izan ere, azken egunetan iristen zait beroaldia, berandu berotzen den horietakoa naiz. Orain arte nahiko lasai egon naiz, baina jadanik beharrezkoa den urduritasuna iristen ari zait. Gogotsu naiz.

Nola egingo diozu aurre txapelketari?

Duela gutxi hasi naiz lagunekin saiakerak egiten. Hala ere, entrenamendurik onena urte osoko saioak dira eta, alde horretatik, lasai nago.

Zurekin lehiatuko den seiko-teari buruz zer iritzi duzu?

Bertsolari gazteak dira, baina final-laurdenetan asko erakutsi dutenak. Horrez gain, Sus-trai Colina dago sailkatua, bertsolari gaztea eta, era berean, eskarmentua duena. Txapelketa honetan hori gertatzen ari da: esperientzia eta gaztetasuna kasu askotan eskutik doa-zela. Hori berri ona dela uste dut bertsolaritzarentzat.

Jexux Mari Irazu lagunari ger-



NOELIA LATABURU

tatutakoaren beldur ba al zara?

Jexux Marirekin hitz egin dut eta saioan urduritasunik ez zuela esan dit. Egun batean egin dezakezuna erakutsi behar duzu eta hori, askotan, ez da lan erraza izaten. Horregatik, Jexux Mariri gertatutakoa ulertzen dut, nahiz eta oso ona izan bertsotan.

Orain arteko saioak nola ikusi dituzu?

Alde batetik, maila handiko saioak izan direla uste dut, ikusten da bertsolariek lan handia egin dutela eta, batez ere, gaur egun bertsolariak oso prestatuak daudela. Beste alde batetik, bertsozaleen

erantzuna aipatuko nuke. Sekulako jarraipena izaten ari da aurtengo txapelketa, eta hori azpimarragarria da, dudarik gabe.

Finalerako txartela garesti dagoela diote. Zer diozu?

Oso garesti egongo dela uste dut aurtengoa. Bertsolari batek kale egiten badu, bere lekua beste batek hartuko du. Sorpresak egongo dira, ziur aski. Esaterako, Unai Iturriagak izugarritzko saioa egin zuen pasa den igandean, eta gogor ari da lehian. Lan txukuna egitea dut nik helburu, ikusiko dugu zer gertatzen den. Uste dut saio polita izan daitekeela igandekoa.

ASTEASU ▶ AGENDA 21

Etxebizitzak balorazio negatiboa batzarrean

Herenegun 29 herritarrek parte hartu zuten gai zerrenda luzearen inguruan

M. SAN SEBASTIAN

Asteasuko 29 herritarrek parte hartu zuten Udalean Agenda 21 gaiaren inguruan egingandako batzarrean. Haiekin al-katea, aholkularitza etxeko hiru kide, udaltaldeko koordinatzailea eta udal teknikaria izan ziren. Herritarrek egindako ekarpenekin ondorio onak atera dituzte.

Lehenik, Agenda 21-en inguruko proiektzioa eman zuten, nondik norakoak azalduz. Ondoren, Ernioaldeko udal taldearen fase ezberdinak aztertu zituzten. Azkenik, herri batzarrean lan metodologia izan zen mintzagai. Honen

guztiaren ondoren, bertarutako herritarren ekarpenak entzuteko garaia iritsi zen. Gai zerrenda bat aurkeztu zuten, eta herritarrek bakoitzaren alderdi positibo eta negatiboak azaldu zituzten. Guztien artean landu zituzten, beraz, ondorioak.

Herritarrek etxebizitzaren gaiari alderdi negatibo dezentetikosten dizkiotela argi geratu zen. «Herri berri bat» sortu dela esan zuten herritarrek etxebizitza berrien inguruan. Horratx alderdi negatiboa. Honez gain, udal zerbitzuak eta mugikortasuna ere aztergai izan ziren, bestelako balorazioarekin.

VILLABONA ▶ DANTZA

Oinkari taldearen 30. urteurrena

Oinkari dantza taldeak 30 urte betetzen ditu eta, hori dela eta, hilaren 17an eta 18an hainbat ekitaldi prestatu ditu. Hilaren 17an, 22:00etan, Hiriburuko (Iparralde) Leinua eta Oinkari dantza taldeek emanaldia egingo dute Olaederra kiroldegian. Sarrera doan izango da. Bestalde, hilaren 18an Oinkari dantza taldean aritutako guztien bazkaria izango da Asteasuko Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria egingo dute bertan. Bazkarian izena emateko 660 13 93 80ra deitu behar da, edo astearte eta ostiral arratsaldetan Ikastolako ganbarara joan.

VILLABONA ▶

Mus eta tute txapelketarako izen-ematea

Behar-Zana Kirol Elkarteak 2005-2006 mus eta tute txapelketarako izen-emate epea zabaldu da dagoeneko. Interesatuak izena emateko azken eguna hilaren 17a izango dute, Behar-Zana elkartearen bertan.

AMEZKETA ▶

Bide Eginez batzarra egingo dute bihar

Bide Eginez batzarra egingo dute bihar Amezketa, 12:00etan, udaletxeko gela balioganitzean. Azken 4 urteetako balantze politikoa eta Batasunak aurrerantzean defendatuko duen ildo politikoa aztertuko dituzte.



Udaltalde 21 Ernioaldea

Herri Batzarrak ospatuko dituzten hilabeteetan herritar guztiek, Tokiko Agenda 21aren bitartez, parte har dezagun gure herriaren etorkizuneari. Parte hartu ezazu. Zer esanik baduzu!!!

1. HERRI BATZARRAREN TOKIAK ETA DATAK

Aduna: azaroak 23an, udaletxean, 20:30ean

Anoeta: azaroak 29an, udaletxean, 19:30ean

Asteasu: azaroak 10ean, udaletxean, 19:30ean

Irura: azaroak 24an, udaletxean, 19:30ean

Hernalde: azaroan zehar bilduko da

Villabona: abenduak 1ean, udaletxean, 19:30ean

Zizurkil: azaroak 17an ordua eta lekua zehaztear dago

PARTAIDEAK:



HERNALDE

IRURA

VILLABONA

ZIZURKIL

ADUNA

ANOETA

ASTEASU

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Ibartarrek Sestao FS taldearen aurka jokatu dute bihar

Partida zaila izango da, baina guztia emateko asmoarekin doaz Ibarraoak; jubenilek atsedena dute aste honetan

ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeak bihar 12:15ean Sestao FSren aurka jokatu du Sestaoko Las Llanas kiroldegian. Ibartarrak, beraz, sailkapenaren erdialdeko postuetan kokaturiko beste talde baten aurka ariko dira. Cesar Roca entrenatzailearen mutilak pasa den aste porrotaren ondoren guztia emateko asmoarekin doaz par-

tida hartan galdutako hiru puntuak errekupeatzeko helburuarekin.

Ibarra Sestaoko taldearen aurka jokatu dituen azken partidei dagokionez, emaitza desberdinekin amaitu dira. Izan ere, Bizkaian jokatuak azken partidari, 5-2ko markagailuarekin amaitu zuten, «gehiago merezi arren» izan zituzten aukera guztiak kontuan hartuta. Belabietan, berriz, ibartarrak

izan ziren gailendu zirenak; 5-3 irabazi zieten Sestaoko azken segundoetan erabaki zen partida gogorrean.

Ibarraoaren taldea osatzen duten jokalariei dagokionez, aipatu behar da denak ere osaturik eta jokatzeko prest dardela. Partida zaila izango den arren, ez da ezinezkoa, «Ibarra maila altuko taldeen aurka jokatzeko gaitasunik ez zaiola falta» erakutsi baitu.

Partida ugari jokatu dituzte aurtengo denboraldia hasi zenera, eta une honetan talde bakoitzak, kokaturik dagoen postuaren arabera, jaitzierako-eta aldentzeko edota igoera postuetan mantentzeko borrokatuko du. Ibarraoaren kasuan, lehenengo bi partidak galdu egin zituzten, ondorengo laurak irabazi, eta azken partida, etxean jokatuakoa, galdu egin zuten. Hortaz, 15 taldez osaturiko multzoan, 7. postuan daude kokaturik.

Jubenilek atsedena

Bestalde, Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek entrenatzen duen jubenilen taldeak 4 garaipen batu ditu denboraldia hasi zenera. Aste honetan atsedena izango dute, beraz, egun batzuk izango dituzte taldeak entrenatzeko eta hurrengo norgehiagokarako prest izateko, aurkari gogorra izango baitute, Iruñeko San Juan.

CESAR ROCA ▶ IBARRA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Ibarra horrelako talde bat izatea ez da txantxetako gauza»

Inigo Terradillos ▶ 11 urte daromatza tolosarrak Ibarra areto futbol taldea entrenatzen. Urte horietan guztietan une politikak eta ez hain politikak bizi izan ditu taldeak. Une horien eta etorkizunaren inguruan aritu da solasean HITZAREKIN.

Hasiera polita izan duzue. Talde honek iazkoarekin zerikusirik ez duela dirudi.

Pasa den urtean taldea erabat berria zen, hutsetik hasia bezala izan zen guretzat. Taldea berriz ere osatu, joko mota bereiztu, nortasuna lortu... Ez zen erraza izan, baina azkenean juxtu-juxtu izan bazen ere, maila mantentzea lortu genuen. Kontua da taldea sendotzen

hasi dela, eta hori nabari da. Iaz lehenengo itzulian 9 puntu genituen, eta aurtun 12 puntu ditugu iadanik.

Non du taldeak hutsune handiena?

Defenditzeko orduan ditugu aihalgune gehienak.

Zein izango da ligako aurkari gogorrena.

Talde gogorrena Alaves UPV dela esango nuke.

Lehen A mailan, zilarrezko mailan eta berriro lehen A mailara. Une horietan guztietan izan zara. Nola gogoratu dituzu?

Lehen A mailan hasi nintzen Juan Antonio Rodrigerezekin



NOELIA LATABURU

eta hiru urte eta gero Zilarrezko kora igo ginen. Sekulako taldea genuen, eta maila handiko taldeekin lehiatzen ginen. Denean politena igoeraren unea izan zela esango nuke. Geroago proiektu hura hautsi egin zen hainbat arrazoiengatik. Hala ere, aipatzekoa da Ibarra beti izan ditugula zaleen animoak, eta hori eskertzekoa da.

Zaila al da jende gaztearekin entrenatzea?

Uste baino lan handiagoa eskatzen du, ez baita taldea en-

trenatzea soilik, taldearekin, jokalariekin duzun harremanak garrantzia handia du.

Etorkizuna?

Proiektu edo ideia bat dut buruan aspalditik, Lehen A mailan taldea sendotu eta gaztetatik jendea trebatzea helburu duena. Hutsune handia dago areto futbolaren formazioan, duen garrantzia ez emateagatik. Ibarra bezalako herri batean horrelako talde bat izatea ez da txantxetako gauza, eta askok ez dute hori ikusten. ◀

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege berriaren arabera, lantegietan ezin izango da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzailentzat egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizue? Gogorregia al da legea? Edota are gogorragoa izan beharko luke? Zergatik?

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai.

Pagoa eta haritza. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

Eskape osoa. DEP markakoa. Honda CR 250 98, 99, 2000. Gutxi erabilia. Interesatuak deitu

600 90 36 28 (Joxe) telefono zenbakira.

LANA

Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

BERASTEGI ▶

Bikote baten ezkontza berezia gaur

Urepele elkarteak antolatuta Berastegiko bi gazteen arteko «ezkontza berezia» izango da gaur, 19:30ean. Hitzordu honetara herritar guztiak animatu nahi dituzte, baina hori bai dotore jantzita joatea jarri dute baldintza bezala. Ezkontzaren ostean, luncha egingo dute herriko tabernetan, eta ondoren afaria Urepele elkartearen. Afaria amaitzean, dantzaldia izango da.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera eskolan astelehenean

Datorren astelehenean, hilaren 14an, eta betiko orduan, hau da, 18:30etik aurrera, Berastegiko Muñagorri eskolan odola emateko aukera izango da berriro. Berastegiko odol emateko elkartetik gazte jendea batez ere animatu nahi dute, odol ematearen artean hirutik bat soilik baita 35 urtetik beherakoa.

TOLOSA ▶

Topagunearen urteurrenoko festa gaur

Asteburu honetan Gazte Topaguneari urtebete beteko du bere ateak ireki zituenera, eta hori dela-eta gaur festa berezia antolatu dute: 18:00etan perkusio kalejira izango da Zozongo taldearekin, eta 20:30ean afaria egingo dute Topaguneari.

TOLOSA ▶

Kapoeira eta sukaldaritzan izen-ematea

Tolosako Udaleko Gazteria sailak kapoeira eta munduko sukaldaritzan ikastaroak antolatu ditu. Kapoeira ikastaroa hilaren 19an hasiko da, 10:00etatik 12:00etara, eta 30 euro ordaindu beharko dira. Munduko sukaldaritzan ikastaroa, berriz, hilaren 18an hasiko da, 19:30etik 21:00etara, eta 20 euro ordaindu beharko dira. Izen-ematea hilaren 14tik 18ra egin beharko dute interesatuak.

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶ MUSIKA

Mendialdeko Abesbatzen IV. Biltzarrean izanen da Asketa

Igantzin eta Donezteben egingen dute jaialdia, gaur, 20:15etan hasita



Asketarekin batera, beste zazpi abesbatzek hartuko dute parte oraingoan, besteak beste, Giltzarriak-ek —irudia ekainean Leitzara etorri zenekoa da— ere antolatuta duen biltzar honetan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gaur egingen dute Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen IV. Biltzarra, eta haraxe joatekoa da ere Leitzako Asketa abesbatza, besteak beste.

Urtero egin ohi dute halako jaialdia; egun bat aukeratu eta abesbatza mordoska elkartzten dira, eta guztien parte-hartzearekin kontzertua ematen dute. abesbatza bakoitzak abesti pare bana kantatuz, eta

elkarrekin ere bizpahiru pieza eginez. Oraingo txandan, Bortziriko Igantzin eta Donezteben egingen dute biltzarra, jaialdiaren antolakuntza, hain zuzen ere, bertako hiru abesbatzen esku egonik, hots, Igantziko

Abesbatza, Giltzarriak eta Mendi Abesbatza. Aurtengo edizioan bitan banatuko dira abesbatzak, zortzi izanik joatekoak. «250 kantari gutxienez izanen gara, eta guztiak batera sartzekotan, ez baitzen lekurik geldituko entzuleentzat», azaldu diote HITZARI Asketako ordezkariak. Horrela, 20:15ean hasita, Doneztebeko elizan ariko dira Asketa bera, bertako Mendi Abesbatza, Lizarrako Ereintza Abesbatza eta Aiegiko Done Jakue Bidea Abesbatza; Igantzikoan, berriz, bertakoa erekin eta Bortzirietako Giltzarriak-ekin batera, Altsasuko Erkudengo Ama eta Etxarri Aranatzko abesbatzak ariko dira.

Jakinarazi dutenez, Iparragirrerren *Agur Euskal Herriari* eta herrikoia den *Ai, Marimiel* eskainiko ditu Asketak biharko saioan; ondoren, lau abesbatzak elkartzuta egingen dituzten abestiak honako hauek izanen dira: Mokoroaren *Iunabarra*, *Euskaldunak*, *Beti maite*, eta ohiko moduz, *Agur Jaunak*.

Jendaurrean abestekeo entseatzaren aritzean dira urtean zehar, eta noizean behin halako erakustaldiak egitea guztiz gozagarri suertatzen da.

ARESO ▶

Bihar Olazabal Zegaman ari beharra da DV torneoa

Jauregi lagun duela, final-laurdenetan lehiatuko da aresoarra

J. ASTIBIA

Mikel Olazabal aresoarrak bihar du DV pilota sariketako beste kanporaketa jokatu beharra. Zegamako pilotalekuan izanen da hori, 11:30ean hasiko den jaialdiaren barrenean, bigarren partiduan, zehazki. Final-laurdenetan da gaztea, eta edizio honetan Jauregi du kide atzeko koadroetan; biak hala biak ere erakustaldi bikainak egingen ari dira sariketan. Biharkoan, Castillo eta Argote izanen dituzte arereri, txapelketan parte hartzen ari diren bost serietako baten buruak direnak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Basrategi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ FUTBOLA

Beti Onak direnen aurka, Aurrera indarrez ateraz

Igande arratsalde Arkixkilen dute hitzordua

J. ASTIBIA

Bihar, igandea, Arkixkilen ikusiko dute elkar, 15:45etik aurrera, Aurrera eta Beti Onak taldeek. Oraingoan atarrabiarrak etorriko dira, beraz, Leitzara.

Lehendik ere ezaguna dute taldea Aurrerakoek, aurreko denboraldietatik. Talde polita dute, jokatzeko badakiena, eta aurkariak irabaziko badio, lana eginarazten duena.

Iazko emaitzei erreparatuz gero, Leitzan jokatu zutenean 2 eta 1eko emaitzarekin bukatu zen partidua leitzarren alde, itzulerakoan 1-0, haiek irabazi

bazuten ere. Oraingoan ikusi egin behar.

Edozein moduz, egungo denboraldian Aurrerak 14 dituen lekuan (bosgarren doaz), 6 puntu ditu Beti Onak-ek; azken hirugarren lekuan daude, hortaz, jokatuako 7 partidutatik bakarra irabazita. Esan liteke, beraz, Atarrabiako taldea ez dabilela batera ongi honetakoan.

Bestalde, gaur bertan eta 15:45etik aurrera ere, Aurrerako gazteen taldeak Aozizen aurka jokatu behar du Arkixkilen. Aurreko jardunaldian, Union Mutilverarekin izan zuen.

LEITZA ▶ GIZARTEA

«Ehizako uso postuak garbitzeko prest» ikasleak

J. ASTIBIA

Ikasbaldaiarako dirua irabazteko asmoz, ikasle talde bat «ehizako postuak garbitzeko prest» agertu da, eta eskaintza horren berri jakinarazi du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleak ikasturte bukaeran egin nahiko luketen ikasbidaia ahalbideratzeko beste ideia bat izan omen da honako hau: «Ehiza denboraldiaren bukeran kartutxo-azalak bildu behar izaten dituzte ehiztariak eta lan hori egiteko prest gaude, diru baten truke», dio; «prezio kontuak ehiztarien

Horrelako *kuxidaderik!* J. L. H.

eta ikasleen artean adostuko» omen dituzte.

Interesatuentzat harremanetarako telefono zenbaki bat ere jarri dute eskuragarri: 659 46 26 32.

Jakina da uso postuek «erabat» egon behar luketela «kartutxo azalez eta bestelako zikinkeriez garbi», postuan dagoenaren ardura izanik.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Buztin tailerra haurrentzat. 17:30ean, kultur gelan. Kultur Elejiraren barruan.

Hernalde. Hernaldeko V. Rolleski Igoera. 15:30ean, dortsalen banaketa Belatan; 16:00etan, skating estilokoan irteera; 16:10ean, estilo klasikokoena. Alpino Uzturre elkarteak antolatuta.

Tolosa. Bide Eginez batzarra egingo du Batasunak. 11:30ean, Kultur Etxean.

Tolosa. Magrebeko II. Jardunaldien baitan: 11:00etan, Trianguloan, ogi tradizionala nola egin, artisautza tradizionala eta dastatze gastronomikoa; 19:00etan, *Ni Mohamed* antzezlanaren Aranburu Jauregian; 21:30ean, afaria Abastos plazan; afalostean, kontzertua eta sabel dantza.

Tolosa. Mus Azkarreko V. Txapelketa, lau erregetara. 16:30ean, Beotibarren. Izen-ematea, Fronton kafetegian, 30 eurotan.

JAIAK

Tolosa. 10:30ean, haur krosa; 12:00etan, apustua Gaztelu eta Amasa artean; 14:00etan, txekor jatea; ondoren, Jexuxen Jazbana; 19:00etan, Kultur Etxean, txiste kontalariak; 20:30ean, bertso jaialdia J. Agirre, Peñagarikano, Irazu eta Mendiluzerekin; ondoren, Abiba DJ.

MUSIKA

Tolosa. Xabier Erkizia. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Areso, Goizueta, F. Loidi Etxea. 112. Herria. Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitza* hegala saioa. Eneritz Urkola, Amaia Goikoetxea eta Julen Goikoetxearekin.

Goiko irrattia (107 FM)
 13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pagotxaren bila...

TOLOSA ▶ Mendiko materialaren merkatu txikia antolatu du Oargi elkarteak, Mendi Hamabostaldiaren baitan; aukera zabala dago, eta modu onean



Bihar arte dago zabalik merkatu txikia; euskal mendizaletasunaren historia ere ezagutu daiteke. L. MONTES



Eskiak, botak, jertseak, zirak, niki eta galtza termikoak, zakuak, kanpin dendak... daude salgai. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Mendirako materiala ez da ez merkea izaten. Hori jakinda, eta eskualdean dagoen mendirako zalesun handia kontuan hartuta, Oargi elkarteak mendiko materiala prezio ezin hobean lortzeko aukera eman nahi diete egunotan inguruko mendizaleei. Horretarako, bigarren esku materialarekin merkatu txikia antolatu dute, Mendi Hamabostaldiaren baitan.

Botak, eskia, niki eta galtza termikoak, zapatilak, zirak, forro polarrak, jertseak, zakuak, kanpin dendak... Denetik aurki daitezke elkarteak (Santa Maria kalea). Eta gutzia modu onean. Astelehenean zabaldu zuten azoka, eta harrera ona izaten ari da. Gaur eta bihar dira hara joateko azken egunak: gaur, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; bihar, berriz, 16:00etatik 20:00etara.

Elkarteko hormak, gainera, dotore apainguta daude euskal mendizaletasunaren historiari buruzko erakusketarekin. Liburuak, aldizkariak, egutegiak... ere eros daitezke. Datoren asterako, hitzaldiak eta proiektioak iragarri dituzte.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Celes eta Patxi.
 Urrezko berrogeita hamar musu bana. Maite zaituztegu.



URTE ASKOAN
 Irati Ibarbia (Ibarra). Gaur 11 urte. Muxu handi bat familiaren partetik gure poxpolinari.



URTE ASKOAN
 Jokin Gurrucaga Manzano (Ibarra). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat Mariaren partetik.



URTE ASKOAN
 Martina Iturbe (Bedaio). Ama, amona eta birramona. Gaur ospatuko dugu zure 91. urtebetetzea.

HITZA,
 zorion agurren
 tartea

Mesedez,
 argazkia bi egun
 lehenago ekarri.
 Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 beheka
TOLOSA
 Udaletxeko bulegoa
LEITZA



IRUTXULO

KORRIKALARIEN FESTA

Iritsi da Behobia-Donostia lasterketa. 11.500 lagun aterako dira 20 kilometrotako ibilbidea egitera. Bide bazterrean animoak ematera ere jende asko elkartuko da



ENRIQUE CIFUENTES ▶ FORTUNA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Kalitateak eta giro bereziak lasterketa hau handi egiten dute»

Segurtasuna, erosotasuna eta zerbitzu ona ziurtatzea du lehentasun; ikuskizuna eta lasterketaren izaera herrikoa bateragarriak direla dio

Mende laurdena egin du Enrique Cifuentesek Fortuna kirol elkartearen leman. Behobia-Donostia lasterketaren nondik norakoez eta etorkizuneko erronkez ere hitz egin dugu berarekin.

Nola aldatu da Behobia Donostia azken urteotan?

Lagunarteko giroan egiten da lasterketa, eta horretan, behintzat, ezer gutxi aldatu da. Gaur egun, ordea, lasterketa sendotu da. Hasieran, ez genuen erakundeen aldetik laguntza handirik. Urte batean ez ziguten baimenik eman, eta lasterketa ia klandestinoki egin behar izan genuen. Gauzak asko aldatu dira. Erakunde guztiek babesten dute proba orain.

Lasterketan parte hartu al duzu noizbait?

Ez dut sekula lasterketan parte hartzerik izan. Azken urteotan irteeran koordinazio lanean aritu izan naiz. Ondoren, autopista hartzen dut helmugara lasterkariak baino lehenago iristeko. Eta, bertan, agintariekin eta egoten naiz. Ea laister erretiroa ematen didaten, eta lasterketaren inguruko giroaz gozatzeko aukera dudan.



IMANOL OTEGI / IRUTXULO

Aurten 11.500 lasterkari izango dira. Hala ere, jende askok ezingo du lasterketan parte hartu.

Inoiz baino jende gehiagok hartuko du parte aurten Behobia-Donostian. Marka hautsiko dugu. Baina, mila pertsona baino gehiago geratuko dira irte-

teko aukerarik gabe. Pausoz pausoz goaz. Urtero gero eta parte-hartzaile gehiago daude. Segurtasun arazorik ez dagoen neurrian, hala jarraituko dugu. 2002an eta 2003an sargoria eta hezetasun handia egin zuen, eta zerbitzu medikuak estu ibili ziren. Ez dugu

arriskurik hartu nahi lasterkari gehiegi hartuz. Azpiegitura aldetik ere oso zaila da. Datorren urtean, izena emateko epea aurreratu egingo dugu, abuztu partean jarriko dugu. **Lasterkariel prestakuntza egokia egiteko deia egin diezue. Eraginik izan al du?**

Lasterketan parte hartzen duen jendeak prestakuntza ona du. Oro har, ez du axolagabeki jokatzeko. Azken orduko zentzurik gabeko apustularik gutxi izaten dira.

Babesle handi batekin sinatu duzue kontratua. Horrek ez al dio lasterketaren izaera herrikolari kalterik egiten?

Babesle batekin negoziatzekoan, argi uzten dugu lasterketaren izaera herrikoa. Lasterkari profesionalak aritzea ona da. Ez diogu horri inoiz lehentasunik eman, ordea. Ikuskizuna eta lasterketaren izaera herrikoa bateragarriak direla uste dugu. Gainera, lasterkari amateurrek gustuko dute atletaezagunekin korritzea.

Zeintzuk dira aurten lasterkari ezagun horiek.

Chema Martinezek du irabazteko aukera gehien. Richard Fernandez eta Fran Lostau ere hortxe ibiliko dira. Emakumezkoetan, proba bitan irabazi duen Iratxe Aranburuk hartuko du parte. Maria Luisa Irizarrek aspaldi egindako marka apurtzeko gai izango den emakumezko lasterkari bat ekartzeko asmoa ere badugu.

Aurrera begira, zeintzuk dira erronka nagusiak?

Lasterketaren dimentsioa da erronka nagusia. Kantitatea baino, kalitatearia emango diogu lehentasuna beti. Segurtasuna, erosotasuna eta lasterkariei eman beharreko zerbitzua, alegia. Jendeak ondo pasatzea da garrantzitsua. Kalitatea eta giro berezia bere horretan mantentzea handi egiten dute Behobia-Donostia.

La Cuchara de San Telmo

Koilara eta Miniaturako sukaldaritza

Abuztuaren 31 kalea, 28
(Atzekoa, San Telmorekin bat)
DONOSTIA

JUANXO
TABERNA

ESPEZIALITATEAK:
OGITARTEKOAK,
BANDERILA
BERO eta HOTZAK

Enbeltran kalea, 6 • Tel.: 943 42 74 05 • DONOSTIA

KRISTINA

Elikadura Biologiko
Makrobiotikoan espezialista

- Kontsulta Naturista
- Dieta pertsonalizatuak
- Azaleko tratamenduak

Gozatu Behobia-Donostia

Txingurri pasealekua 15
HERRERA
Tel.: 943 391 613

GOZOTEGIA OIARTZUN

Bonboneria - Izoztegia
Berezitasuna: Trufak

Igentea, 2
Tel.: 943 42 62 09
DONOSTIA

Decoraciones GROS

- Parketak eta tarimak
- Zoru mota guztiak
- Hormen estaldurak

LIVIS PRODUCTU NATURALAK
(PINTURAK, ARGIZARIAK, OLIOAK, ETAB.)

San Frantzisko, 19 behea - 20002 DONOSTIA
Tel.-Faxa: 943 27 85 05

Arbelaitz

Loiola 3 • Peñaforda 5 • Txurruka 7 • DONOSTIA

BIAK

ELEKTRO MEKANIKA
Kotxe konponketa

Zurriola Pasealekua 24 • Tel.: 943 275 660
20002 DONOSTIA

ANTXU TABERNA

Jo e...

KONKORRENEA 37

KEMENTSU

1983an atera ziren lehen aldiz elbarriak Behobia-Donostia proban;
Kemen elkarteak gero eta ezindu gehiagok kirola egitea lortu nahi du



54 atleta elbarrik parte hartuko dute aurtengo edizioan. KEMEN

Aurten ere atleta elbarriek ez dute Behobia-Donostian huts egingo. Kemen elkarteak antolatzen du probaren atal ikusgarri hau.

Kemen Euskal Herriko elbarrien kirol elkarte da, eta ezinduen artean kirola bultzatu nahi du. Mons pasealekuan du

egoitza elkarteak eta 1994an sortu zen, eskiatzen zuten pertsona ezindu batzuen ekimenez. Gaur egun, atletismoa, txirrindularitza, urpekaritza, igeriketa eta mahai tenisa egiten dituzte, besteak beste. Elkarteak 125 bazkide ditu gaur egun.

Behobia-Donostiak toki berezia izan du sorreratik Kementen egutegian. Elkarteok ahalik eta pertsona gehienek lasterketa herrikoian parte har dezaten ahalegintzen dira. Aurten 54 elbarrik parte hartuko dute proban. Hala ere, elkarteak sortu baino lehenago ere

parte hartzen zuten ezinduek lasterketan. 1983an atera ziren lehen aldiz ezinduak Behobia-Donostia proban. Elbarrientzako lehen lasterketa hartan bost kirolarik parte hartu zuten, gurpildun aukien kategorian guztiak. 1987tik aurrera, gurpildun aukien kategoriaz gain,

beste bi ere jarri zituzten: itsuentzat bata eta oinez joan daitezkeen elbarrientzat beste. Aurten garun paralisia dutenen kategoria ere egongo da, lehen aldiz. Nazioartean, hala ere, gurpildun aukietan egiten den probak du sona gehien. Diotenez, munduko hamar proba onenetakoa da Behobia-Donostia.

21 urteotan aldaketa handiak gertatu dira elbarrietuen kirolean. Esaterako, garai hartako eta egungo aukiek ez dute zerikusi handirik. Hasieran, kalean erabiltzen zituzten aukia berak erabiltzen zituzten atletek. Oraingo aukiak askoz arinagoak dira eta 3.000 euro inguru balio dute. Onenek erabiltzen dituzten ahulkiak are garestiagoak dira: 6.000 euro inguru balio dute.

Atletek beraien lana behar bezala egin dezaten, ezinbestekoak dira laguntzaileak. Bina txirrindulariren laguntza izaten dute aukian doazenek. Izan ere, aukian doan kirolariak ez du ikusten aurrean zer duen, eta laguntza behar du. Itsuen eta garun paralisia dutenen kasuan beste hainbeste gertatzen da.

Behin lasterketa bukatuta, lasterketan arerio izan direnak, mahaiaren bueltan elkartzen dira, bapo jateko eta lasterketari buruz hitz egiteko.

Oliden

Juan Manuel Oliden Arratibel

Narrika 1-1'B
Tel.: 943 430 483
20003 DONOSTIA

BATERIAS LEUN S.A.L.

Bateria industrialak
NAFARROA, GIPUZKOA ETA
ERRIOXAKO BANATZAILE BAKARRA

Bidebitarte lantegi 124
15. lokala, 26. poligonoa
Tel.: 943 33 01 81 ASTIGARRAGA
Faxa: 943 33 01 97

Grupo Tudor

ERRETERIAKO KIROL PATRONATUA

Korrika helmugaraino!

TEUSA


ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA

teusa@adegi.es

www.teusa.com

Tel.: 943 401 477



Egin beharreko ibilbidea ezagutzeko garrantzitsua da, lasterketa egunean ezustekorik ez izateko. Behobia-Donostia lasterterako hainbeste entrenamendoren ondoren, marka litzateke

ibilbidea ez ezagutzeagatik kale egitea. Lehen lau kilometroak giharrak berotzeko eta norberak bere erritmoa aurkitzeko egokiak dira. Beraz, ez ezazu lasterketa sprintean hasi

patxadaz hartu, eta erritmo egokia topatzen saia zaitez. Zortzigarren kilometroan dago Gaintxurizketa gaina, askoren amesgaitza. Lasterketaren une gogorra da, gora

iristeko bi kilometroko aldapa igo behar baita. Izardi ederra bota behar duzu goraino heltzeko... Baina lasai, ondorengo zatia, indarrak berreskuratzeko aproposa baita. Gai-

nera, bosgarren kilometroko anoa postuan edaria hartzeko aukerarik izan ez baduzu, lasai, 10,12,5 eta 15 kilometroetan ere badaude eta. Hala ere, argi egotea garrantzitsua da,

Gaintxurizketatik helmugara oraindik 10 kilometro falta baitira. Hainaseigarren kilometroan, Pasaiako portutik atera ondoren, Mirakruzeko aldapa dator.

Tira, gogorra da, baina lau kilometro baino falta ez zaizkizunean ez zara lasterketa uzteko pentsatzen ariko, ota? Gainera, ikusleen txalok eramango zaituzte helmugaraino.

Astelabeneran IRUTXULOKO HITZAN
Behobia Donostia
Lasterketako sailkapena zuzenean duzu.
Harpizidunak beti bezala etxean jasoko ditue, eta gainerako herritarrek hantako lekutari DOAN eskuratu ahal izango ditue.

- Elkar Megadenda (Bilintx)
- Donostia okindegia (Arco Amara)
- Kiroldagari guztietan
- Anosteko kirari etxean
- Udaltzaitegi nagusia
- Koldo Miralena liburutegia
- EHUren campusean
- Norko gelakia
- Euzko topa gelakia
- Larromendi gesolindegia
- Garbera
- Laster kirari denda
- Añel kirari denda
- Belaldormoa

BELFAST Irish Tavern
Ikatz kalea, 9 • Tel.: 943 42 01 12 • Donostia

Araoz Gonzalez
LURRINDEGIA-APANDEGIA-OPARAK
Zabala, 7 • TEL. 943 22 83 84 • DONOSTIA

ATEAK Amara
Barruko eta kanpoko ate eta armairu eskaintza, urte osoan
Antxo Jakinaren hiribidea 23 beheko
Tel.: 943 466 479 - DONOSTIA

JATETXEA Juanito kojua
ESPEZIALITATEA: ARRAINAK ETA ITSASKIAK
Kaia kalea, 14 • Tel.: 943 42 01 80 • Fax: 943 42 18 71
20003 DONOSTIA • www.juanitokojua.com

OKADOS INMOBILIARIA
Zumardi pasealekua 3, beheko Tel.: 943 394677
20016 BIDEBIETA
www.buscacasas.com

BRANKA
ARRAINETAN ESPEZIALISTAK
JANGELA ETA TERRAZA ITSASOARI BEGIRA
OSTEGUNERO JAZZ EMANALDIAK
20:00etatik 22:00etara
E. Tallidá pasealekua (Piztaren onazua)
Tel.: 943 317 096 DONOSTIA

EL 5º PINO Taberna
Sekundio Enxada, 9
GRUPO
TEL. 943 27 32 50
943 27 94 50
DONOSTIA

EL 5º PINO Taberna
Ikusten duzuna dastatu nahi baduzu, zozot! Ogitarlekoetan eta pintxoetan aukera paragaratzen.

Sarriegi plaza - Tel.: 943 426153

EROSKI GANBERA
Erosten jakin

IKER PAGOLA ▶ KORRIKALARIA



I. ASENSIO

«Anaiarekin parte hartuko dut, baina bakoitzak bere erritmoa hartuko du»

Bihar bederatzigarren aldiz parte hartuko duen arren, lasterketarako «prestaketa berezirik» egingo ez duela dio Iker Pagola korrikalari tolosarrak

INIGO ASENSIO

Hogeita bederatzit urterekin ez da atletismoagatik bizitza emanen duen horietakoa. Txirrindulari zen garaian «nahiko lan» egin zuela, eta kirola «beste modu batera» ulertzen duela dio tolosar honek. Duela 8 urte, txirrindularitza uztean, korrikako probetan parte hartzen hasi zen. Denbora horretan, Behobia-Donostian zortzi aldiz hartu du parte; biharkoa bederatzigarrena izango da. Urte hauetan jasotako esperientziez eta atletismoa ulertzeko duen moduz mintzatu da Herriarekin Iker Pagola kirolari tolosarra.

Zer dela-eta ekin zenion atletismoari txirrindularitza uztean?

Txirrindulari nintzen garaian, neguan ere korri dezente egiten genuen; beti izan dut gustuko. Bizikleta uztean kirola egiten jarraitzea erabaki nuen, korri egin, mendira joan... Errazena korrika aritzea egiten zi-

tzaidan, eta, gainera, denbora gutxiago kentzen zidan.

Txirrindulari bezala ere urte batzuk egin zenituen, ezta?

Bai, junior mailara arte aritu nintzen Oriako Txirrindulari Eskolan. Gero, afizionatueta pasatzean, herriko taldean aritu nintzen. Unitravel-en, eta gero bi urte egin nituen Iberdrolan. Azkenean uztea erabaki nuen eta korrika hasi nintzen, esan dudana bezala.

Noiz hasi zinen korrika lehiazten?

Egia esateko, betidanik parte hartu izan dut krosetan, txirrindularitza denboraldia hasi baino lehen-eta. Uztean askatasun gehiago neukan noski, eta

orduan gehiagotan parte hartzen hasi nintzen, serioegi hartu gabe baina gehixeago entrenatuta.

Zenbatetan hartu duzu parte Behobia-Donostia proban?

Bederatzi izango dira biharko-arekin. Txirrindularitzako azken denboraldia amaitzean egin nuen lehenengoz, eta orduz geroztik, behin izan ezik, urtero hartu dut parte.

Urte horietan eboluziorik ikusi duzu?

Ez dakit. Gorabehera handiak izan ditut. Ez naiz beti berdina prestatu. Urte batzuetan ondo ibili naiz eta beste batzuetan parte hartze hutsagatik joan naiz hara. Egindako denbore-

tan ere nabari da noski, aurretik entrenatu duen ala ez.

Zer moduz ikusten duzu zure burua aurtengo ediziorako?

Aurten hainbat krosetan parte hartu dut, eta nahiko ondo ikusten dut nere burua; ea nola sentitzen naizen bihar.

Lasterketarako helburu zehatzik ba al duzu?

Ez. Ez dut ezer zehatzik egiten saiatzeko intentziorik. Ordu eta hamabost minutuko denbora jaistea ondo legoke, baina ez naiz horrekin itsutuko.

Behobia-Donostiaz gain, zein beste probatan hartu duzu parte?

San Estebango Herri Krosean parte hartu izan dut, eta Zu-

DI-DA BATEAN ▶

Gustuko kirolari bat? Lance Armstrong.

Korritu nahiko zenuen proba bat? Maratoia, baina ongi prestatuta.

Behobia-Donostiarako denbora bat? Ordu eta hamahiru minutu.

Lasterketako unerik gogorrena? Gaintxurizketa eta Mirakruz gainak.

Zer egingo duzu lasterketaren aurretik? Gosaldu eta berotu.

Eta ondoren? Ederki bazkaldu.

maian izaten den Zakila Biran ere parte hartu izan dut; hori ere 20 kilometrokoa da. Horrez gain, Donostian 10 eta 15 kilometroko bi krosetan aritu izan naiz, eta beste zenbait lasterketat.

Zein da egin duzun distantziarik luzeena?

Maratoia, duela hiru bat urte egin nuen. Salto handia nabaritzen da. Hilabete falta zela erabaki nuen parte hartzea eta ez nuen denbora gehiegi izan distantziara egokitzeko. Luze samarra egin zitzaidan, egia esateko, denbora luzeagoz prestatu beharko nuke gauzak ondo egiteko.

Pentsatu al duzu noizbait maratoiak korritzeko prestatzea?

Ez. Distantzia luzeegia da eta horrek prestatzeko denbora gehiegi lapurtuko lidake. Behobiarako pixka bat prestatuta nahiko da; maratoiak gehiago eskatzen du.

Biharko lasterketara begira egin al duzu prestaketa berezirik azkenaldian?

Ez, nik ez dut bereziki prestatzen. Krosak korritzen ditut eta entrenatzen aritzen naiz, baina lehen esan dizudan bezala, helburu zehatzik gabe; txirrindularitza utzi nuenetik kirola jolas bezala hartzen dut.

Eta elikadura aldetik zaintzen al zara bereziki?

Bezperan pasta jan beharko da (kar-kar...). Ez, hortaz ere ez naiz gehiegi kezkatzen.

Ba al du berezitasunik Behobia-Donostia probak?

Nik uste ibilbidea, bere horretan, oso gogorra dela. Ez dizu erritmoa hartzen uzten. Normalean kilometroko daramazun denborarekin kalkuluak egiten has zaitezke, baina han zailagoa da.

Bihar, bakarrik ala lagunduta ariko zara?

Anaiarekin parte hartuko dut, baina bakoitzak bere erritmoa hartuko du lasterketan. Ezin ibil gaitzeko bata bestearen zain. Hobe da bakoitza bere sentipenen arabera aritzea.

BEHOBIA PRESTATZEN

«Krosak korritzen ditut eta entrenatzen aritzen naiz, baina ez dut Behobia-Donostia proba bereziki prestatzen»

BEDERATZIGARRENA

«Bederatzi izango dira biharko-arekin. Txirrindularitza utzi nuenetik urtero irten dut proban behin izan ezik»

HELBURUAK

«Ordu eta hamabost minutuko denbora jaistea ondo legoke, baina ez naiz horrekin itsutuko»

ALDEZ AURREKO PRESTAKETAK

Bihar izango den Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko dutenen artean badira Tolosaldeko korrikalari ugari; horietako bat da 20 urteko Ainara Toledo tolosarra

IÑIGO ASENSIO

Bihar izango da Behobia-Donostia probaren 41. edizioa. Parte hartuko duten hamaika mila korrikalarien artean badira Tolosaldekoak ere. Horietako batekin mintzatu da HITZA, honelako proba bat prestatzeko egin behar den lana ezagutzeko.

Ainara Toledo tolosarrak 20 urte ditu eta lehengo urtean lasterketa ezagutu ondoren aurten ere parte hartzera animatu da. Aurreko edizioan «be-launeko arazoak» zirela eta ez zuen lasterketa nahi bezala egiterik izan, horregatik prestatu da aurten gogoz. Biharko eguna nolako izango den kontatu digu:

07:30. Goizean goiz esnatu eta gauzak prestatuko ditu. Lasterketarako arropak eta honen aurretik eta ondoren jarri beharko dituenak motxilan sartu eta gosaltzera joango da.

07:45. Gosaltzeko, esnea eta zerealak hartuko ditu. Jan behar denari kasu gehiegi egiten ez dion arren, zerealek dituzten karbohidratoak beharrezkoak izango ditu lasterketarako.

08:15. Tren geltokira joan eta lehenengo tren hartuko du.

09:00. Trenetik jaitsi eta 30 minutu inguru daude oinez irteera lekura arte; bertan berotzeko aukera ere izango dute, goiz samar izango den arren.

10:30. Parte-hartzaileei irteerarako deia egiten zaie. Lasterketan beharko ez dituzten gauzak utzi eta beroketa ariketak bukatzen joateko unea da.

11:00. Irteera. Lasterketa hasita ez da atzera bueltarik izango. Ordura arte egin den eta egin ez den lana errepidean ikusiko da.

13:00. Guztia ondo badoa, lasterketa amaituta izango du. Atsedean hartzen hasteko ordua.

15:00. Etxean ordurako. Izugarriko gosearekin, bazkaria indarrak berreskuratzen jarraitzeko beharrezkoa izango zaio.

17:00. Arratsaldean etxean geratu baino nahiago omen du kalera irten. Lehengo urtean «artikulazioetan mina» izan zuen arren, psikologikoki lasaitzeko ondo etorriko omen zaio.

21:00. Afaltzeko ordua, nekea nabarmena izango da ordurako, eginiko ahalegina kontuan izanik.

22:30. Astelehenean lanerako prest egoteko, lo ondo egitea ere beharrezkoa izango zaio.



Usabaleko kiroldegian, prestaketarako aproposa den materiala erabiltzen du Ainara Toledok. Azken aste honetan, gehiegi entrenatzerik ez dagoenez, korri egiteko zintan saio lasaiak egin ditu, eta amaitzeko, giharreak erlajatzeko estiramenduak, gorputza, proba iristen denean prest egon dadin. I.ASENSIO

Udatik entrenatzen

I.Asensio ▶ Ume zen garaian ez omen zuen kirol gehiegi egiten, baina duela urte pare bat korrika egiten hasi zen eta abenduaren 31n Villabonako San Silbestre Elkartzan Krosean hartu zuen parte. Hura izan zen egin zuen lehen lasterketa eta gustura aritu zenez, beste zenbait krosetan parte hartzen hasi zen.

Behobia-Donostiara uda amaieran prestatzen hasten da. «Astean hiruzpatalu alditan irteten nahiz entrenatzera, hasieran 50 minutu inguruko saioak eginez, eta poliki-poliki denbora hori ordu eta 20 minutura arte luzatzen joaten naiz», dio tolosarrak. Goiz eta arratsaldeko erreleboetan egiten du lan, eta horren arabera entrenatzen du. Ez dio elikadurari garrantzia gehiegi ematen, «astean bizpahiru aldiz jaten dut pasta, karbohidratoengatik, baina bestela ez naiz gehiegi zaintzen», gaineratu du Ainara Toledok.

Lasterketari buruz galdeztean, badaki gogorra izango dela. «Une gogorrena Pasaiaiko portu ingurutik pasatzea izango da, psikologikoki, behintzat. Zuzen-zuzena da, ez dago ezer, ezta jenderik ere animatzeko, eta horrek benetan gogorra egiten du korrika jarraitzea». Datorren urtean parte hartzeko asmoa duen galdetzean, Ainara Toledok ez ditu gauzak garbi. «Lehendabizi bihar gauzak zer moduz doazen ikusi beharko da; datorren urtean pentsatuko dut hori». ◀

ENTRENAMENDUA

Astean hiruzpatalu alditan irteten nahiz entrenatzera, hasieran 50 minutu inguruko saioak eginez

LASTERKETA

«Une gogorrena Pasaiaiko portuaren ingurutik pasatzea izango da, psikologikoki behintzat»

NEW YORKEN BAINO GIRO HOBEA

Euskal Herriko lasterketa herrikoijendetsuena da Behobia-Donostia; New York, Berlin eta Parisko maratoiak entzutetsuagoak diren arren, inon ez da arnasten bertako lasterketaren giro berezia

Behobia-Donostia lasterketak izaera herrikoia du. Bertan, giroa aparta izaten da beti, eta gero eta korrikalari gehiago biltzen ditu. Aurten marka guztiak hautsiko ditu: 11.500 lasterkari abiatuko dira Behobiatik Bulebarreko helmugara. Lasterkari asko, ordea, irten ezinik geratuko da. Eskaria eskaintza baino handiagoa baita, berriro ere.

Euskal Herrian badira antzeko ezaugarriak dituzten hainbat lasterketa ezagun. Behobia-Donostia lasterketa albo batera utzita, Santurtzi eta Bilbo lotzen dituen izan ohi da jendetsuena. 3.000 lasterkari inguruk parte hartzen dute. Santurtziko kiroldegitik abiatzen da lasterketa eta Bilboko Kale Nagusian du helmuga; Bizkaiko Foru Aldundiaren pare-parean. 16 kilometroko ibilbidea du.

Martin Fizen jaioterriak ere badu lasterketa herrikoia. Gabon aurreko igandean jokatzeko da Gasteizko Maratoi Erdia. Rosalia de Castro kalean hasten da, eta Mendizorroztan bukatzen da. Gorabehera asko izan ditu lasterketak. Azkenaldian, baina, sendotuz doa. 1.500 lasterkaririk gora elkar-tzen dira azken urteotan.

Galizia etorbidean hasi eta Larrabide estadioan bukatu ohi da Iruñeko maratoi erdia. Maiatzaren bigarren igandean jokatzeko da, eta 1.000 parte-hartzaile inguru biltzen ditu.

Diego Garcia memoriale izena du Azkoitia eta Azpeitia arteko maratoi erdia. Arrakasta handia du, eta Iruñean adina jende elkartzen da. Martin Fiz eta Abel Antonez gain, Diego Garcia zenaren beste hainbat adiskide ere hurbiltzen da bertara.

Duela zortzi urte sortu zen Donibane Lohizune eta Hondarribia arteko maratoi erdia. Ibilbidea Thiers bulebarrean



New Yorkeko maratoi entzutetsua da, dudu izpirik gabe, munduko lasterketa herrikoia eta koloretsuena.

hasi eta San Pedro kalean bukatzen da. Kostaldeko bide malkartsu eta ederretik barrena. 500 lagun inguru elkartu ohi da eta giroa aparta izaten da.

Munduko maratoi herrikoiak

Munduan ere beste hainbat lasterketek dute izaera herrikoia. AEBetan, New York, Boston eta Chicagoko maratoiak dira esanguratsuenak. Joan den asteburuan egin zen New Yorkekoa, hain justu. Guztietan entzutetsuena. Paul Tergat ke-niarrak irabazi zuen. Eta 37.000 lagun bildu ziren. Lasterketa jai handia da hiriko biztanleentzat eta munduko txoko guztietatik etorritako korrikalariarentzat. Hain entzutetsuak ez diren arren, lasterkari asko — 30.000tik gora — elkartzen dituzte Chicago, Los Angeles eta Bostongo maratoiak.

LASTERKETAK

Lasterketa herrikoia ezagunenetakoa New Yorkeko maratoi da; joan den asteburuan jokatu zen

Europar ere sona handiko lasterketak egiten dira. Iraila bukaeran izan zen Berlingo maratoi. Milaka pertsona elkartu zen, kirola eta jai uztartuz. Londresko maratoi da famatuena, baina. Ohi legez, udaberri partean egingo da, apirilaren 23an, eta 40.000 lasterkari inguru bilduko ditu. Saso berean, Rotterdango maratoi ere jokatu da. Ibilbide-erik ederrena, ordea, Pariskoak du eta apirila hasieran izaten da. Apurka-apurka haziz doa. Iaz 35.000 lagun inguru elkartu zituen.



Santurtzi-Bilbo maratoi erdia; sardin saltzaileen bidea jarraituz.

Kamera digit@ berri bat nahi duzu? Aukeratul
Fotokai-n. Zure kamera digital berria finantzatzen dugu.

3 hilabetetan interesik gabe eta beti bezala prezio onenean.

Orain zure argazkiak telebistan ikusi ditzakezu*
Errebelatuarekin argazki CD-a **doan.**

Fotokai
argazki dendan

Erresoluzio handiko argazki CD-aren ezaugarriak:
-Argazki aurkibidea CD-an inprimatua.
-Segurtasun osoz irudiak gordetzeko sistema.
-Argazkiak ordenagailuan edo telebistan ikusteko aukera.*

*Foto eta Kamera digitalak hainbat gurekin: VCD formatuan, DVD erregistrozailerako bidaiagarri, Gortasuneko eskaria, 20 kopiatu argazki CD-a doan. Eskaintza promozionala Fotokai dendan.